

ENERGIA NUKLEARRA

Txernobylgo umeak berriz Euskal Herrira, Ukraina desegiten ari bada ere

 **GIZARTEA** / joseangel.oria@gaur8.info

Ekainetik abuztura bitartean Txernobyl inguruko ehunka ume hartuko dituzte aurten ere Euskal Herriko makina bat familiak, Ukrainako krisi politiko larriak azken orduan egitasmo guztiak aldatzera behartzen ez badu behintzat. Aurtengoan, euskal herritar horiek inoiz baino gehiago begiratu dute desegiten ari den herrialdera.

Txernobylgo zentral nuklearrak izan zuen istripuak eragindako biktimak gogoratzeko egunak dira berriz. 28 urte geroago, inoiz izan den istripu nuklearrik larrienak kalteak eragiten jarraitzen du, eta kalte horiei aurre egiteko sortutako dinamikiari eutsi nahi diote Euskal Herrian eskualde kutsatu hartako haurren alde sortutako elkarrekin: ekainetik abuztura bitartean Txernobyl inguruko ehunka ume hartuko dituzte aurten ere, Ukrainako krisi politiko larriak azken orduan egitasmo guztiak aldatzera behartzen ez badu behintzat.

«Gu iazko ekainean izan ginen Ukrainan, umeek etorri behar zutenean, eta abuztuan berriz, beren herrialdera itzuli zirenean», esan dio GAUR8ri Nerea Zubia Chernobilen Lagunak elkarteko idazkariak.

BETIKO ASMOA

Aurten ere egitasmo bera aurrera ateratzeko asmoa dute, baina Ukrainako giroa asko nahastu da eta ezin dute baztertu gauza-aren bat aldatu behar izatea. «Arazorik izango ote dugun? Ez dakit bada. Handik bertatik ez dela arazorik izango esaten digute. Gu lan guztia beti bezala egiten ari gara, baina egia da hango paperak-eta ez direla behar bezala iritsi. Kiev hiriburuan omen daude, baina oraindik sinatu gabe, zigilua jarri gabe. Gure bertako laguntzailea larri zegoen, beste batzuetan bizkorrago egiten dituztelako gestio horiek. Denbora pasa da

paperak entregatu zituenetik, baina oraindik jaso gabe zegoen. Edonola ere, umeak etorriko direla esaten digute».

Tankerako kezkak dituzte Chernobileko Umeak elkartean, Ukrainako egoera politikoa ez baita inor lasai uzteko modukoa. Enrique Angulo kideak Ukraina bisitatu berri du, elkarrekin beste kide batekin batera. Elkarrekin webgunean aurkituko ditu irakurleak otsaileko azken astean bertatik idatzitako eskutitzak. «Nabarmendu behar dugun mezua lasaitasunarena da: gure umeek normaltasun osoz bizi dute beren egunerokoa, beraiek bizi diren lekuan ez baitago bizitza aldatuko dien inolako gertaerarik. Beti bezala bizi dira: eskolara joan, kalean edo parkean jolasean ibili... Ez dute gauza berririk ikusten beren bizitzan», zioten otsailaren 20ko idatzian.

Garai hartan Kiev hiriburuko Maidan plazan izan ziren istilu guztiak. Egoera baretzen ari zela zirudienean iritsi ziren Ukrainara, baina, ezegonkortasuna nagusi denean, berehala alda daitezke gauzak.

«Haurrek badakite, telebistako berriak ikusten dituztelako, Kieven zerbaite gertatzen ari dela, baina beraien mundutik oso urruti geratzen zaie», zioten elkarrekin bi kideek. Butxa herrian manifestazio txiki bat ikustea tokatu zitzaion. Kieveko protestaldian hildako pertsonen alde kandelak piztu zituzten esku hartzaileek, baina inolako istilurik gabe. Hiriburuan gertatzen ari zenarekin batere zerikusirik ez.

Geroztik egoerak okerrera egin du. Beren umeen herrietan Ukrainaren aldeko jarrera da nagusi, ez Errusiaren aldekoa. «Herritar guztiak Viktor Janukovitx presidentearen aurka zeuden. Ukrainan beti izan da zatiketa hori: ukrainarrak alde batetik eta errusiarrak bestetik. Orain gauzak nahastu egin dira. Krimean gertatutakoak giroa gaiztotu egin du», esan dio Enrique Angulok GAUR8ri.

MAIDAN ETA KRIMEA

Angulok garbi dauka presidente kargutik kendu zuten Janukovitx «lapur hutsa» zela, baina agintean zegoen: «Agian Valentzian bezala gertatuko da: gehien lapurtzen duenari boto gehiago ematen zaiola».

Maidanen eta Krimean gertatutakoa ikusi ondoren, une honetan ezin da baztertu Ukrainako beste eskualde batzuek ere egungo egoera aldatu nahi izatea. «Ez dakigu Errusiak kalera ateratako manifestariak diren edo zer, iristen zaigun informazioa ez baita beti fidagarria izaten. Izan ere, Maidaneko manifestariak zoragarriak ziren aurrena; eta gero, faxistak», dio.

Otsaileko eskutitzetan margo-tutako egoera aldatu egin zaie Txernobylgo umei ere. «Krisi politikoa gure umeen bizitza aldatzen hasia da: pentsioak berandu kobratzen dituzte eta beraien otordu nagusia, eskolan ematen zieten, desagertu egin zaie. Beraien egoera Maidaneko protestak gertatzen ari zirenean baino askoz ere gordinagoa da une honetan», jakinarazi du Enrique Angulok.

info+

• **Chernobil Elkartea:** asociacionchernobilelka.rtea.blogspot.com.es

• **Chernobileko Umeak:** chernobilekoumeak.blogspot.com.es

• **Chernobilen Lagunak:** chernobilenlagunak.com

• **Bideoa: Pirritx eta Porrotx Txernobylgo haurren alde:** www.youtube.com/watch?v=cFoMNP9jBbs



Maidan plaza bisitatzeko aukera izan zuten Janukovitxen aurkako manifestariz beteta zegoenean. «Gu izan ginen egunean sarraski bat egin zuten: dozenaka hildako. Guk ikusi genituen barrikadek ezertarako ez zuten balio, pasa nahi zuten pertsona guztiak pasatzen ziren-eta. Etxean egindako balen aurkako txaleko bat jarri zidaten, hondarra erabiliz egindako jantzia, argazkia egiteko. Beisboleko bate bat ere eman zidaten. Turistei zuzendutako ekimena zirudien», gogorarazten du Chernobileko Umeak elkarteko kideak.

Chernobileko Lagunak elkarrekin laguntzaile bat dute Ukrainan bertan, eta berak egiten dizkie gestio guztiak, umeak udan Euskal Herrira etor daite-